# **Lau Matrioxkak:** Elkar hobeto ulertzeko eskuliburua



alex carrascosa 2023



PERTSONA
(grezierazko *prosopon* edo "mozorro" hitzetik). Gure aldarte, jarrera edo jokabidea; antzezten ditugun pertsonaien multzoa.

INTERES INDIBIDUALAK:
Pertsonarteko harremanetan azaleratzen diren kezkak: Estimua, Kidetza, Autonomia, Ekitatea eta Maila/ Estatusa.

EGOA:
Gure gorpuztasunaren eta subjektibotasunaren kontzientzia; biziraupeneko, inklusioko zein autoestimuko oinarrizko giza premien erdigunea.

DUALISMOA
"sistema eragile" gisa; gizakiok errealitatea hautemateko, pentsatzeko eta ulertzeko modua eta gure pentsamenduaren emaitza.

# Lau Matrioxkak: Elkarrizketa æfektibo baterako urratsak



**1. Norbere egoarekin hitz egitea**; "aitortzen zaitut" esatea; ditugun premiez geure buruari galdetzea eta horiek zerk eragiten dituen arakatzea.



**2. Aurrez aurre dugun pertsona gure antzekoa dela onartzea**, bere interesekin, premiekin eta pentsamoldearekin.



**3.** Beste pertsonarengandik are gehiago urrunduko gaituen ***ideiaren* edo *kolorearen* "Bosgarren matrioxka" janztea saihestea.** Elkarrizketa æfektiboaren helburua ez da Besteari irabaztea, elkar ulertzea baizik.



**4. Entzutea lehenik eta hitz egitea geroago.** Entzutea ekintza iraultzaile nagusia da: beste pertsonari hitza ematea; hari ulertzeko gogoa adieraztea; haren *matrioxketan* arakatzen laguntzea. Entzuteak boterearen modurik zoli eta demokratikoena emango digu: lagunmintzeko gaitasuna, konfiantza.

alex carrascosa 2o23



**5. Bestearen kontakizunetik geure buruari itauntzea**; gure motibazioetan arakatzea elementu komunak aurkitzeraino.



**6.** Behin alde bakoitzak elkarren motibazioak ezagutu eta ulertuta, **elkarrizketa kontziente bat eraikitzea**, elkarrekiko entzumenean, guztion premiak asetzeko erak argitzean eta elkarren osagarri izatean oinarritua.